

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,  
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

**Vitoria-Gasteizko udalerrian energia-komunitateen eraketa eta kudeaketa eta horiei lotutako eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetako inbertsioa, autokontsumo kolektiboko erregimenean, finantzatzeko Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdi publiko**

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2024ko azaroaren 15ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2022-2024 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartu da, dirulaguntza-lerro hori sartzeko, bai eta Vitoria-Gasteizko udalerrian energia-komunitateen eraketa eta kudeaketa eta horiei lotutako eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetako inbertsioa, autokontsumo kolektiboko erregimenean, finantzatzeko dirulaguntzen deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak ere.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, lege horren araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzan xedatutakoaren arabera, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 19an

*Hiri Ereduren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta  
Ingurumenaren Saileko Zerbitzu Juridiko Administrazioaren burua  
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ*

#### Oinarri arautzaileak

##### Aurkibidea

Zioen azalpena.

- Deialdiaren xedea.
- Dirulaguntzen plan estrategikoa.
- Aurrekontu-zuzkidura.
- Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak.
- Entitate onuradunak eta betekizunak.
- Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak.
- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa.
- Dirulaguntzak emateko prozedura.
- Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

11. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.
  12. Eskabideko akatsak zuzentzea.
  13. Prozeduraren instrukzioa.
  14. Emateko ebazpena.
  15. Uko egitea.
  16. Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.
  17. Dirulaguntza justifikatzea.
  18. Dirulaguntza ordaintzea.
  19. Dirua itzultzea.
  20. Interpretazioa eta aplikagarri diren araudiak.
  21. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratzea.
- I. eranskina. 1. eremuan sartutako auzoen planoak.
  - II. eranskina. Definizioak.
  - III. eranskina. Dirulaguntzaren eskaera.

**Energia-komunitateen eraketa eta kudeaketa eta horiei lotutako eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan (autokontsumo kolektiboko erregimenean) inbertsioa bultzatzeko Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdia eta oinarri arautzaileak 2024. Urterako**

Zioen azalpena

Klima-aldaketa gizarte- eta ingurumen-erronka handia da, eta hiriek funtsezko zeregina dute horretan; izan ere, berotegi-efektuko gasen isurketen ehuneko 70 inguru sortzen dute, eta horren ondorioek bereziki eragiten diete.

Berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko, ezinbestekoa da hiriek trantsizio energetikoko prozesu bat burutzea, eredu energetiko jasangarria lortzearen. Horrek esan nahi du egungo energia-sistematik —zeinean nagusi baitira sorkuntza termikoa eta energia fosiletan oinarritutako sistema elektriko zentralizatu eta hierarkizatua— energia eredu deszentralizatu berri batera igarotzea —zeinean energia berriztagarriak izango baitira nagusi—, bi alderditan oinarrituz: batetik, eskariaren elektrifikazioa; bestetik, kontsumitzaileen zeregin aktiboa, energia komunitarioko proiektuak abian jarrita.

Energia komunitarioko proiektuak garatzeko funtsezko tresnetako bat energia-komunitateak dira, Europar Batasuneko araudian jada aintzat hartzen direnak, bi figuraren bitartez: herritarren energia-komunitatea (EB 2019/944 Zuzentaraua, elektrizitatearen barne-merkatu arau komunei buruzkoa, 16. artikulua) eta energia berriztagarrien komunitatea (EB 2018/2001 Zuzentaraua, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera sustatzea, 22. artikulua). Energia-komunitateak partaidetza guztiz borondatezkoa eta irekia duten erakunde juridikoak dira, zeinetan kideek —persona fisikoak, ETEak edo tokiko agintariak izan daitezke— baitute kontrol efektiboa. Horien helburua komunitateari energia-onurak eskaintzea da, zeinetatik, orobat, ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onura handiak eratortzen baitira komunitateko edo tokiko kideentzat.

Indarrean dagoen esparru juridikoak bideragarri egin du autokontsumoa, 244/2019 Errege Dekretuaren bidez —energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen ditu—, eta energia berriztagarrien komunitateen figura definitu du 23/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez —Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legearen zenbait artikulua aldatzen ditu—; horren arabera, aipatu komunitateak "parte-hartze irekian eta

borondatezkoan oinarritutako erakunde juridikoak dira, autonomoak eta erakunde juridiko horien jabetzakoak diren eta erakunde horiek garatu dituzten energia berriztagarrien proiektuetatik hurbil dauden bazkideek edo kideek efektiboki kontrolatutakoak, bazkideak edo kideak pertsona fisikoak, ETEak edo tokiko agintariak badira, udalerrriak barne, eta helburu nagusia bazkideei edo kideei edo jarduten duten tokiko zonei ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak ematea bada, finantza-irabazien ordez”.

Energia-komunitateek zenbait abantaila dituzte herritarrentzat eta tokiko komunitatearentzat, hala nola energia berriztagarriko tokiko baliabideak eta beste energia- edo mugikortasun-zerbitzu batzuk modu justuago eta errazago batean eskuratzea, edo tokiko komunitatean bertan irauten duten inbertsio- eta sarrera-aukerak sortzea, tokiko energia berriztagarrien garapenaren onarpena areagotuz, baita tokiko enplegua sortzea eta gizarte-kohesioa eta -ekitatea sustatzea ere.

Orain dela urte batzuetatik hona, Vitoria-Gasteizko Udalak hainbat ekintza egin ditu energia komunitarioko proiektuak eta energia-komunitateak bultzatzeko. Hala, 2022an zehar hedapen- eta sentsibilizazio-kanpaina bat egin zen, honako hauek azalduz: erakunde mota horiek zehazki zer diren, energia komunitarioko proiektu bat hasteko zer arrazoi dauden, zer proiektu mota jar daitezkeen abian, nola egin daitezkeen eta zer onura ekonomiko, ingurumeneko eta sozial dakarzkieten komunitateari.

2024ko uztailetik, Vitoria-Gasteizko Eraldaketa Komunitarioko Bulegoa funtzionatzen ari da. Bulego horren jardueren helburua da energia-komunitateak sustatzea eta dinamizatzea, hartara horiek sortzeko eta garatzeko interesa duten eragileei —batez ere herritarrak, ETEak eta menpeko toki-erakundeak— laguntzeko sistema indartuz. Europar Batasuneko Next Generation Funtsek finantzatzen dute, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren “CE-OFFICINAS” programaren bidez.

Horregatik guztiagatik, udalerrian trantsizio energetikoa egin beharra dagoela ikusita, eta klima eta energiaren alorreko ekintzarako planak betez, Vitoria-Gasteizko Udalak erabaki du energia komunitarioaren kontzeptua eta energia-komunitateak bultzatzen jarraitzea, dirulaguntzen bidez komunitateak sortzea eta horiei lotutako proiektu energetikoetan inbertitzea sustatuz.

Laguntza-deialdi honen helburua da neutraltasun klimatikorako konpromisoa lortzen laguntzea, Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Planarekin (PACES2030) eta Klimaren aldeko Gasteizko Hitzarmenarekin lerrotatuta, Vitoria-Gasteizko udalerrian energia-komunitateen eraketa bultzatuz, baita energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioak sustatuz ere, bereziki bizitegi-sektoreko autokontsumo kolektiborako eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan.

### 1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Vitoria-Gasteizko Udalak dirulaguntzak ematea Vitoria-Gasteizko udalerrian energia-komunitateen sorrera/eraketa eta kudeaketa bultzatzeko eta komunitate horien jabetzakoak diren eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioak abian jartzeko, autokontsumo kolektiboko erregimenean. 2. eranskinean jasotzen dira dirulaguntza hauetan kontuan hartutako figuren definizioak.

### 2. Dirulaguntzen plan estrategikoa

Indarreko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) aurreikusita daude dirulaguntza hauek; Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi zuen plana, eta 2024ko azaroaren 15ean aldatu zen, dirulaguntza hauek jasotzeko.

Laguntzen bidez sustapenerako helburu espezifiko hauek lortu nahi dira:

- Vitoria-Gasteizko udalerrian trantsizio energetikoa sustatzea.
- Energia komunitarioaren kontzeptua babestea, energia-komunitateak sortuz.

- Energia berriztagarriek hiriaren mix energetikoari egiten dioten ekarpena handitzea eta horietan inbertitzen laguntzea.

- Udal plangintzan ezarritako klima-neutraltasunaren helburua lortzen laguntzea.

### 3. Aurrekontu-zuzkidura

3.1. Deialdiaren ildotik ematen diren laguntzak (600.000,00 euro orotara) honako aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

– 2024/022204.1722.48067: 90.000,00 euro.

– 2024/022204.1722.78005: 510.000,00 euro.

Aurrekontu-zuzkidura 4. oinarrian aurreikusitako bi jarduera-eremuen artean banatuko da, honela:

- 1. eremua: aurrekontuko diru-izendapenaren ehuneko 60 (360.000,00 euro).

- 2. eremua: aurrekontuko diru-izendapenaren ehuneko 40 (240.000,00 euro).

3.2. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan xedatutakoaren ildotik, zuzkidura hori handitzerik izango da, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena dela medio, baldin eta aurrekontu-kreditu erabilgarriak bada, artikuluko horretan aurreikusitako zirkuntantzietakoren bat gertatzen delako. Horretarako, dagokion gastu-dosierra tramitatu beharko da lehenago, eta laguntzak emateko ebazpenaren aurretik argitaratu, deialdia argitaratu zen he-  
dabide beretan.

### 4. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

4.1. Dirulaguntza-deialdi honek diruz lagun daitezkeen bi kontzeptu biltzen ditu:

- 1. kontzeptua: energia-komunitateak eratzeko eta kudeatzeko gastuak.

- 2. kontzeptua: energia-komunitateei lotutako instalazio fotovoltaikoetan inbertitzea.

4.2. Gainera, bi jarduera-eremu geografiko bereizten dira:

- 1. eremua: auzo zaugarrienak, hau da, ofizialki eremu degradatuak dituztenak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketak babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren 9.2 artikulua arabera, eta erdi aroko hirigunea. Honekin batera doan 1. eranskinean jasotzen da auzo horien planoa.

- 2. eremua: Vitoria-Gasteizko udalerriko gainerako auzoak eta menpeko toki erakundeak.

4.3. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptu horietako bakoitzak alderdi hauek hartuko ditu barne:

1. kontzeptua: energia-komunitateen eraketa eta kudeaketa erraztea, zehazki:

- Dokumentuak izapidetzeko gastuak: energia-komunitatea eratzeko legeko dokumentuak idaztea eta inskribatzea (estatutuak, eskritura publikoak, etab.).

- Energia-komunitatea eratzeko eta kudeatzeko web-orriak edo aplikazio informatikoak diseinatu eta lantzeko gastuak.

Ez dira diruz lagunduko Vitoria-Gasteizko Eraldaketa Komunitarioko Bulegoa energia-komunitateei edo talde eragileei zuzenduta egiten dituen eta inolako kosturik ez duten jarduketak, hala nola partaidetza-prozesuak antolatzea, informazio-kanpainak egitea, pertsona fisiko edo juridiko interesdunen aurreinskripzio-lanetarako beharrezkoak diren bitartekoak prestatzea (web-orriak, inskripzio-orriak, etab.), bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren analisiak eta gobernantza-aukerak, energia fotovoltaikoko instalazioen bideragarritasun-azterketak, instalazio fotovoltaikoak kokatzeko beharrezkoak diren estalkiak lagatzeko txosten juridikoak lantzea eta akordioak idaztea, etab.

2. kontzeptua: eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan inbertitzen laguntzea, energia-komunitateen autokontsumo kolektiboko erregimenean, hauek barne:

- Instalazio fotovoltaikoaren proiektu teknikoa.
- Instalazio fotovoltaikoa egitea eta obra zuzentzea.
- Izapidetzeko eta legezatzeko behar den dokumentazioa lantzeak dakartzan gastuak (Industria Ordezkaritzan eta udalean aurkezteko, konexio-puntua eskatzeko, etab.), baita dirulaguntza eskatzeko eta justifikatzeko dokumentazioa prestatzekoak ere.
- Eguneroko kudeaketarako web-orriak edo aplikazio informatikoak diseinatu eta lantzeko gastuak.

4.4. Instalazio fotovoltaikoak ekoiztako energia harekin lotuta dagoen energia-komunitateko bazkideentzat eskusiboki diren proiektuak bakarrik lagunduko dira diruz.

Instalazio fotovoltaikoak ez du ekarriko lurzoru gehiago artifizializatzea.

Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatzen diren eta alde aurretik erabili ez diren ekipo berriez osatuta dauden proiektuak edo instalazioak baino ez dira diruz lagunduko.

Ez dira diruz lagunduko araudi sektorialak aginduta ezarritako instalazio fotovoltaikoak, ezta instalazioa hirigintza-araudian sartzen ez bada edo hirigintza-lizentziarik ez badu ere, beharrezkoa denean.

4.5. Deialdi honetan sartuko dira 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean egiten diren jarduketak, edo erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte egindakoak.

4.6. Entitate eskatzaileek baliabide egokiak izango dituzte, propioak zein kanpokoak, diruz lagundutako jarduketak praktikan jartzeko beharrezkoak diren dokumentu teknikoak eta administratiboak egiteko. Kanpoko baliabideak kontratatzeak dakartzan gastuetarako dirulaguntza jaso ahalko da, 7. oinarrian (diruz lagundu daitezkeen gastuak) ezarritakoaren arabera.

## 5. Entitate onuradunak eta betekizunak

5.1. Honako hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuaren arabera:

1. kontzepturako:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan inskribatuta dauden elkarteak, pertsona fisikoek, enpresa txiki eta ertainek (saltokiak, bulegoak, lantegi txikiak, etab.) edo erakunde publikoek osatuak, talde eragile gisa, baldin eta energia-komunitate bat eratu nahi badute eta bazkide gehienek (ehuneko 75ek baino gehiagok) jarduera ekonomikorik egiten ez badute.

2. kontzepturako:

- Nagusiki bizitegi-tako kontsumitzaileek osatutako energia-komunitateak, zeinek ez baitute jarduera ekonomikorik egingo, baldin eta hari lotutako instalazio fotovoltaiko batean inbertitzeko dirulaguntza eskatzea erabakitzen badute. Eguneroko kudeaketarako web-orriak edo aplikazio informatikoak diseinatu eta lantzeko ere eskatu ahalko dute dirulaguntza. Energia-komunitate hori izaera pribatuko erakundea izango da, nortasun juridikoduna, eta bazkide gehienek (ehuneko 75ek baino gehiagok) ez dute jarduera ekonomikorik egingo.

5.2. Entitate onuradunek Vitoria-Gasteizko udalerrian eduki beharko dute helbide sozial eta fiskala. Era berean, diruz laguntzea nahi den proiektu edo instalazio fotovoltaikoak Vitoria-Gasteizko udalerrian egon beharko du.

5.3. Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 11.2 artikuluan aurreikusitako egoeretan dauden pertsonak. Bereziki, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dutenak. Eskakizun hori dirulaguntza ematen denean, ordaintzeko obligazioa onartzen denean nahiz dirulaguntza ordaintzen denean bete beharko da.

#### **6. Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak**

6.1. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 12. artikuluan jasotako betebeharrak izango dituzte dirulaguntzen onuradun diren pertsona eta entitateek.

6.2. Gainera, honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Diruz lagundutako jarduketak zuzen eta osorik gauzatzeko behar diren izapideak egitea eta baimenak lortzea, lanen hasieratik lanak behin betiko jaso eta legezlatu arte.

b) Instalazioa argindarra banatzeko sarera konektatzeko eskatzea eta Vitoria-Gasteizko Udalarari konexioa gertatzen den unean jakinaraztea. Instalazioek sortutako energia elektrikoa monitorizatzeko sistema bat izan beharko dute.

c) Energia-komunitateei buruzko urteko datu estatistikoak bidaltzea Vitoria-Gasteizko Udalarari, bidali aurreko urtean eguneratuta: bazkide kopurua, erakunde juridiko mota, energia-komunitateak kudeatutako instalazio fotovoltaikoek sortutako kapazitatea eta energia, eta bazkideen autokontsumorako ekoizitako energiaren ehunekoa. Datu horiek dirulaguntza eman eta hurrengo 5 urteetan bidaliko dira.

d) Instalazio fotovoltaikoa dirulaguntzaren xederako erabiltzea, gutxienez 5 urtez.

6.3. Pertsona eta erakunde onuradunek dirulaguntzaren publizitatea egiteari dagokionez, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 14. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

6.4. Pertsona edo entitate onuradunak solaskide bat izendatuko du Vitoria-Gasteizko Udalarerako koordinazioa errazteko.

6.5. Dirulaguntza hauen onuradun diren energia-komunitateek emakumeak beren bazkideen artean integratzea sustatu beharko dute, bereziki zuzendaritza-batzordean, baita bazkideen artean zaugarriak diren kolektiboak integratzea ere.

#### **7. Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

7.1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzeko, horiek dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zuzenean lotuta gabe lotuta egon beharko dute, eta beharrezkoak izan haiek gauzatzeko. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostuak ezin izango du inolaz ere merkatuko balioa gainditi.

7.2. Obra zibileko gastuak diruz laguntzeko modukoak dira, diruz lagundutako jarduketarekin zuzenean lotuta ez daudenak eta horretarako ezinbestekoak ez direnak izan ezik.

7.3. Proiektua egiteko kostuen eta, behar izanez gero, obra-zuzendaritzaren batura ez da instalazio fotovoltaikoaren kostu osoaren ehuneko 10 baino handiagoa izango.

7.4. Oro har, ez dute dirulaguntzarik jasoko argi zehaztuta ez dauden edo zuzenean inbertsioaren helburu energetikoak lortzea xede ez duten gastuek.

Ez dira dirulaguntzaren xede izango finantzaketa-gastuak, ezta zerga eta tasei dagozkienak ere. Zehazki, ez dira diruz lagunduko BEZa; ekipoak eta instalazioak konpondu, egokitu eta mantentzeko inbertsioak; gastu propioak (langileak, funtzionamendua edo gastu orokorrak); inbertsioaren ondoriozko finantza-gastuak; instalazioa kokatzeko lekuak erosteko edo alokatzeko kostuak; aseguruak; obrak egiten diren bitarteko zaintza eta segurtasuna; diruz lagundu daitezkeen instalaziotik energia ebakutzeko soilik ez diren linea elektrikoak egokitu, birmoldatu edo gauzatea.

Era berean, ez dira diruz lagunduko ingurumen-babes handiagoa lortzearekin zuzenean lotuta ez dauden kostuak, ezta argi zehaztuta ez daudenak edo inbertsioaren energia-helburuak lortzea helburu zuzena ez dutenak ere. Nolanahi ere, ezadostasunik izanez gero Vitoria-Gasteizko Udalaren irizpidea izango da nagusi.

7.5. Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen Legeari kontratu txikietarako ezarritako diru-kopuruak gainditzen baditu, entitate onuradunak gutxienez hiru hornitzaile eskatu beharko die eskaintza egiteko, konpromisoa hartu aurretik, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde, edo dirulaguntza eman aurretik gastua egina badago.

Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa —dirulaguntza justifikatzean edo, bestela, dirulaguntza eskabidearekin batera erantsi beharko dira eskaintza horiek— eraginkortasun eta ekonomia irizpideak aintzat hartuta egin beharko da, eta proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez bada, berariaz justifikatu beharko da, txosten bat aurkeztuz.

## 8. Dirulaguntzaren zenbatekoa

8.1. Eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren ehuneko bat izango da, BEZik gabe; zehazki:

- ehuneko 80 1. eremurako, bai 1. kontzepturako, bai 2. erako.
- ehuneko 70 2. eremurako, bai 1. kontzepturako, bai 2. erako.

Nolanahi ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan 5.000,00 eurotik gorakoa 1. kontzepturako eta 70.000,00 eurotik gorakoa 2. kontzepturako.

8.2. Dirulaguntzak eman ondoren aurrekontu-zuzkidurarik sobera bada, honela jokatu da:

— Lehenik eta behin, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetako batean emandako dirulaguntzen zenbatekoa ez bada iristen aurrekontuan esleitutako zenbatekora, gerakina diruz lagundu daitezkeen kontzeptu berera transferitu ahalko da, beste jarduera-eremuan.

— Bigarrenik, jarduera-eremu bakoitzean emandako dirulaguntzen zenbatekoa ez bada iristen dagokion aurrekontu-zuzkidurara, gerakina beste jarduera-eremura transferitu ahalko da. Azken eremu horretan diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetako bakoitzean emandako dirulaguntzen zenbatekoa ez bada iristen gehieneko zenbatekora, eremu horren barruan diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen artean transferitu ahalko dira.

8.3. Jarduketaren batean diruz lagundu daitezkeen kostua jarraian zehaztutakoa baino txikiagoa bada, ezin izango dira dirulaguntzen deialdi honetara bildu:

- Energia-komunitate berriak eratzeko eta lehendik daudenen kudeaketaren jarraipena eta laguntza egiteko diruz lagundu daitezkeen jarduketak: 750,00 euro (BEZa sartu gabe).
- Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioak abian jartzeko diruz lagundu daitezkeen jarduketak: 10.000,00 euro (BEZa sartu gabe).

## 9. Dirulaguntzak emateko prozedura

9.1. Dirulaguntza hauen izaera eta helburua kontuan hartuta, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 19.1 B) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, konkurrentzia sinplearen prozedura erabiliko da dirulaguntzak emateko, hau da, deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituzten eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duten onuradunei emango zaie dirulaguntza, aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren mugaraino, 3. oinarriaren arabera handitzeko aukera alde batera utzi gabe.

9.2. Eskabidea aurkezten den eguna eta ordua hartuko dira aintzat laguntzak ebazteko lehen-tasun-hurrenkera ezartzeko. Akatsen bat zuzendu behar izanez gero, akatsak zuzendu edo doku-mentazio osagarria aurkezten den eguna eta ordua hartuko dira erreferentziatzat.

## 10. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

10.1 Laguntza hauek bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Ba-tasuneko edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin, salbu eta Vitoria-Gasteizko Udaleko beste sail, erakunde edo enpresa batzuek xede bererako ematen di-tuzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, horiek bateraezinak izango baitira.

10.2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu, inolaz ere, diruz lagun-dutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera. Gainfinantzetarik gertatuz gero, udalaren dirulagun-tzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion neurrian. Nolanahi ere, soberakina itzuli egin beharko da, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

## 11. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea

11.1. Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2025eko martxoaren 31n bukatuko.

11.2. Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>), nahiz legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Proze-dura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

11.3. Eskabide bakarra aurkeztuko da 5. oinarrian deskribatutako erakunde onuradun bakoit-zeko. Deialdi hau argitaratu aurretik 2024an eraturako energia-komunitateek bi kontzeptuetar-ako dirulaguntza eskatu ahalko dute aldi berean.

11.4. Oinarri hauetako III. eranskinean ageri den eredia erabili beharko da eskabidea egi-teko —udalaren webgunean eskura daiteke—. Eskabide guztiekin batera, deialdian ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

11.5. Eskabide-formularioak honako hauek barne hartzen ditu:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honetan ezarritako irizpideak ezagutu, onartu eta betetzeari buruzkoa.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak be-tetzeari buruzkoa.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Oroko-rraren 13. artikuluan jasotako debekuetako batean ere ez egoteari buruzkoa, hartara onuradun izan ahal izateko.

d) Vitoria-Gasteizko Udalari baimena ematea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzare-kikoak egunean edukitzeari buruzko ziurtagiriak ofizioz eskatzeko.

11.6. Dokumentazio hau erantsi beharko zaio eskabideari:

- Entitate eskatzailearen eraketa egiaztatzen duen dokumentazioa: erakundearen estatutuak aurkeztuko dira.

- Entitate eskatzailearen datuak: jarduera ekonomikorik gabeko bazkideen kopurua, jarduera ekonomikoa duten pertsonen kopurua, emakumeen kopurua, migratzaileen kopurua eta kon-tsumitzaile zaurgarrien kopurua.



- Vitoria-Gasteizko Udalari baimenik ematen ez bazaio zerga-betebeharrak egunean edukitzearen inguruko ziurtagiriak ofizioz eskatzeko, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

- Jarduketaren dokumentazio espezifikoa:

- a) Garatu beharreko jarduketaren memoria deskribatzailea: garatu nahi den jarduketaren deskribapen zehatza, kronograma barne, jarduketaren eta/edo proiektuaren hasiera- eta amaiera-datak adierazita.

- b) Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan egindako inbertsioen kasuan, instalazio fotovoltaikoari buruzko dokumentazio hau ere sartuko da:

- Aukeratu den autokontsumo kolektibo mota.

- Eguzki-instalazioaren aurretiazko azterketa xehatua, teknikari eskudunak sinatua, instalazioaren ezaugarri teknikoak jasotzen dituena: unitate-kopurua eta modulu fotovoltaikoen eta inbertsoreen potentzia unitarioa, metagailurik dagoen ala ez, ezaugarriak (marka, eredu, mota, etab.). Ekipoen fabrikatzailearen zehaztapen teknikoaren kopia erantsiko da. Estalkian jartzeko aurreikusitako ainguraketaren ezaugarriak. Instalazioa proposatutako kokalekuan ezartzeko planoak.

- Energia elektrikoaren hornituko diren hornidura-puntuaren kode unibertsalak (HPKB) identifikatzea.

- Instalazioaren lokalizazio-planoak (helbidea) eta kokapen-planoak (estalkia, lurzorua, fatxada, etab.); instalazioa egin nahi den estalki, lurzoru edo fatxadaren argazkia.

- Energia-kalkuluak: ekoiztutako, autokontsumitako eta sarera isuritako energia. Eskariaren urteko estaldura.

- Instalazioak kokatzekoak diren higiezin edo orubea etorkizunean erabilgarri egongo dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

- c) Aurrekontua, energia-komunitatea sortu eta kudeatzeko eta/edo proiektu fotovoltaikoan inbertitzeko gastu-partiden arabera banakatua. Diruz lagundu daitekeen kostua argi eta garbi bereiziko da.

- Jarduketarekin lotutako dokumentazio osagarria:

- Eskrituren/eraketa-aktaren eta estatutu sozial eguneratuen kopia.

- Pertsona edo entitate eskatzailearen izenean dagoen kontu korrante baten titulartasunaren ziurtagiria.

- Ordezkaritza bidez jardunez gero, ordezkatzeko ahalmena egiaztatzen duen agiria.

11.7. Vitoria-Gasteizko Udalak egokitzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahalko dizkie entitate eskatzaileei, aurkeztutako dirulaguntza-eskabidea balioetsi ahal izateko.

## 12. Eskabideko akatsak zuzentzea

Eskabidea jasotzen delarik, baldin eta behar bezala osaturik ez badago edo agindutako dokumenturen bat falta bada, organo instrukzio-egileak galdutako dio eskatzaileari hamar (10) egun balioduneko epean —jakinarazten zion egunaren biharamunetik— akatsak konpondu edo falta diren nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko ezen, hala egin ezean, eskabidea bertan behera utzitzat joko dela, ebazpena tarteko, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 30/2015 Legearen 68. artikulua ildotik.

## 13. Prozeduraren instrukzioa

13.1. Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko Zerbitzu Juridiko Administrazioa eta Jasangarritasun, Klima eta Energia Zerbitzuko udal langileek osatuko dute organo instrukzio-egilea.

13.2. Organo instrukzio-egileari dagokio eskabideak aztertzea eta galdatzen diren betebeharrak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro ofizioz egitea.

## 14. Emateko ebazpena

14.1. Tokiko Gobernu Batzarra da dirulaguntzak emateko organo eskuduna, eskumen hori Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

14.2. Prozedura ebazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten denetik zenbatzen hasita. Epe hori igaroz gero, dirulaguntza-eskabidea ezetsizat joko da.

14.3. Dirulaguntza eman edo ukatzeko ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, eta haren kontra, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da erabakia hartzen duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Era berean, zuzenean aurkeztu ahalko da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

14.4. Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren iragarki-taulan argitaratuko dira, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz; horretaz gain, ebazpen horiek eta izapide-egintzak pertsonalki jakinaraziko zaizkie dagokienei.

## 15. Uko egitea

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, eskabide normalizatua baliatuz egin ahalko dio uko pertsona edo entitate onuradunak hari, eta Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariak onartzen duenean izango ditu ondorioak.

## 16. Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea

16.1. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztera behartuta egongo da pertsona edo entitate onuraduna.

16.2. Pertsona edo erakunde onuradunek Vitoria-Gasteizko Udalari eskatu beharko diote, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, emakida-ebazpena aldatzeko, baldin eta aldaketa horiek emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea badakarte; aldaketa horiek baimendu egingo dira, baldin eta horiek egiteko arrazoia ezusteko zirkunstantziren bat bada edo jarduketa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak badira, eta, betiere, dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.

16.3. Vitoria-Gasteizko Udalak ofizioz ere aldatu ahalko du dirulaguntza emateko ebazpena, erakunde onuradunari entzun ondoren eta funtsak aplikatu aurretik, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzeak eragotzi edo zailtzen badu lortu nahi den interes publikoa erdiestea eta erakunde onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

## 17. Dirulaguntza justifikatzea

17.1. Hiru hilabetekoa izango da dirulaguntzak justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik.

17.2. Dirulaguntzaren onuradun den entitateak dirulaguntza justifikatu beharko du, justifikazio-kontu arrunta aurkeztuz. Horrek agiri hauek barne hartu beharko ditu, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 33. artikulua arabera:

a. Egindako proiektuaren azalpen-memoria:

1. kontzepturako, energia-komunitatearen eraketa egiaztatzen duten dokumentuak (estatu-tuak eta zuzendaritza-batzordearen eratze-akta).

2. kontzepturako, egindako jarduketaren/proiektuaren azalpen-memoria teknikoak, instalazio fotovoltaikoaren azken proiektua, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren aurrean instalazioa legeztatu dela egiaztatzen duen agiria eta instalazioaren argazkiak barne. Web-orriaren kasuan, konfigurazioaren, ezaugarrien eta funtzionalitateen deskribapen-memoria aurkeztuko da, baita helbidea eta aldi baterako sarbide-gakoak ere.

b. Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazio-kontu arruntaren ereduaren arabera. Atal hauek izan beharko ditu, bi kontzeptuetarako:

– 1: funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako justifikazioa.

Proiektua edo jarduera entitate publiko edo pribatu batek baino gehiagok finantzatzen bada edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzen bada bete beharko da atal hori.

– 2: diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda.

Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da atal hori. Gastu motak zerrendatuko dira, hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa zehaztuz. Era berean, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak aurkeztuko dira, baita horiek ordaindu direla egiaztatzen duten dokumentuak ere.

– 3: proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

– 4: langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.

Dirulaguntza jaso duen proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatuko dira, pertsona edo entitate onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (egungo RNT eta RLC agiriak) erantsita.

– 5: gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.

Bidaia, dieta, joan-etorri, mantenu eta antzekoen gastuak justifikatuko dira. Gastu horiei dagozkien merkataritza-agiriak erantsiko dira (erabilitako garraiobidearen txartelak, tiketak, fakturak...), zenbatekoa zehazteko oinarri baitira.

– Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauei buruz:

- Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea gauzatzetik sortu direla eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.

- Onuradunak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena.

- Entitate edo pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion zeharkako kostuen adierazpena, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera dagozkion zatian; benetan egozten den kopurua ezingo da izan deialdian edo hitzarmenean adierazten den ehunetik gorakoa.

- Pertsona edo entitate onuradunaren adierazpena, non zehazten diren diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak —zenbatekoak eta jatorriak—, edo, hala izanez gero, bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu ez dela adierazten.

17.3. Diruz lagundu daitekeen gastu edo inbertsioaren zenbateko osoa justifikatu beharko da, ez emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.

17.4. Vitoria-Gasteizko Udalak dirulaguntza egoki justifikatu den egiaztatuko du, baita jar-duera burutu den eta dirulaguntza ematea ekarri zuen helburua bete den ere.

17.5. Eskatutako dokumenturen bat falta dela edo horietan akatsak daudela ikusiz gero, hamar eguneko epea emango zaie pertsona edo erakunde interesdunei horiek zuzen ditzaten, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

17.6. Vitoria-Gasteizko Udalak beharrezkotzat jotzen duen informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahaliko dio eskatzaileari, laguntzaren justifikazioa behar bezala aztertzeko.

17.7. Justifikatutako benetako gastua diruz lagundutako jarduketarako hasieran aurreikusitako kostua baino txikiagoa bada, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako ehunekoa aplikatuko zaio gastu horri ordaindu beharreko zenbatekoa zehazteko.

## 18. Dirulaguntza ordaintzea

18.1. 1. zein 2. kontzeptuetarako ematen den dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

- Lehenengo, emandako dirulaguntzaren ehuneko 65 ordainduko da, dirulaguntza ematea onartu ondoren eta justifikazioa aurkeztu aurretik.

- Bigarren ordainketa, dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 35, dirulaguntza justifikatu ondoren egingo da.

18.2. Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, entitate onuradunak eskabidean adierazten duen kontu korrontean.

18.3. Kasu hauetan ez da dirulaguntzarik ordainduko: entitate onuradunak Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik. Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun denean ere.

## 19. Dirua itzultzea

19.1. Jasotako diru-kopuruak itzuli egin beharko dira, dagozkien interesekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluan eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. artikuluan aurreikusten diren arazoietakoren bat egokituz gero.

19.2. Gainfinantzaketa gertatuz gero, lortutako soberakina itzuli beharko da, eta dagokion berandutze-interesa eskatuko da, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

19.3. Ez-betetzeak mailakatzeko, proportzionaltasun-irizpideak erabiliko dira, egindako lanen arabera zenbatetsiko direnak, proiektu osoari eta jasotako zenbatekoei dagokienez.

## 20. Interpretazioa eta aplikagarri diren araudiak

20.1. Oinarri hauek eta deialdia interpretatzean sortzen diren zalantzak Tokiko Gobernu Batzarrek ebatziko ditu.

20.2. Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian, honako hauek aplikatuko dira:

- Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra, zeinaren behin betiko onespina 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu baitzen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri baitzen indarrean. Lehen artikuluan ezartzen denez, "ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea".

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, zeinaren bitartez onetsi baitzen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua.

- Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa.
- Bat datozen eta aplikatu daitezkeen gainerako arauak.

Oinarri hauetan aipatzen diren ordenantza eta udal plana Vitoria-Gasteizko Udalaren web-gunean kontsulta daitezke [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

### 21. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatea

Hirugarren batzuekin azpikontratatu ahal da diruz lagundutako jarduera egiteko behar den ehunekoa, ehuneko 100era arte. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitzen duen jarduerarik, haren edukiari balio erantsirik ez badakarkio.

### I. eranskina. 1. Eremuan sartutako auzoen planoak



## II. eranskina. Definizioak

Dirulaguntza hauei dagozkionetarako, definizio hauek hartuko dira aintzat:

- Autokontsumo kolektibotzat jotzen da zenbait kontsumitzaile kontsumo-instalazioetatik hurbil eta haiekin lotuta dauden ekoizpen-instalazioetatik datorren energia elektrikoz elikatzen direnean, elkarrekin ados jarrita, autokontsumo elektrikoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuaren 3. artikulua g) apartatuan instalazio horietaz ematen den definizioaren arabera. Era berean, apartatu horretan ezartzen den bezala, autokontsumo kolektiboa errege-dekretu horren 4. artikuluan definitutako edozein autokontsumo-modalitatetako ia izan daiteke, baldin eta barne-sarearen barruko gertuko instalazioen artean egiten bada, baita soberakinak dituen edozein autokontsumo-modalitatetako ere —artikulu horretan definitutakoak—, sarearen bidez hurbileko instalazioen artean egiten bada.

- Eratu den edo eratzekoa den entitate bat energia-komunitate bat dela ulertuko da baldin eta, haren forma juridikoa edozein dela ere, ekainaren 5eko 2019/944 (EB) Zuzentarauak —herri-tarren energia-komunitateentzat elektrizitatearen barne-merkatutarako arau komunei buruzkoa— ezarritako baldintzak betetzen dituzenean, hau da:

- Parte-hartze borondatezko eta irekian oinarritzen da, eta bazkideek edo kideek dute haren kontrol efektiboa, pertsona fisikoak, tokiko agintariak (udalerrriak barne) edo ETEak izan.

- Helburu nagusia kide edo bazkideei ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak eskaintzea da, finantza-errentagarritasuna sortzea baino gehiago.

- Energiaren (iturri berriztagarrietatik datorrena barne) sorkuntzan, banaketan, hornikuntzan, kontsumoan, metatzean eta biltegitratzean parte hartzen du, energia-eraginkortasuneko zerbitzuak ematean edo kide edo bazkideei ibilgailu elektrikoak kargatzeko zerbitzuak edo beste energia-zerbitzu batzuk ematean.

- Energia berriztagarrien komunitatea erakunde juridiko bat da, aplikatu beharreko zuzenbide nazionalaren arabera, ezaugarri hauek dituena:

- Parte-hartze ireki eta borondatezkoan oinarritzen da, autonomia da eta erakunde juridikoaren jabetzakoak diren eta erakunde horrek garatu dituen energia berriztagarrien proiektuen inguruan kokatutako bazkideek edo kideek dute haren kontrol efektiboa.

- Bazkideak edo kideak pertsona fisikoak, ETEak edo tokiko agintariak dira, udalerrriak barne.

- Helburu nagusia bazkideei edo kideei edo lan egiten duten tokiko zonei ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak ematea da, finantza-irabazien ordez.

- Enpresa bat ETE bat da 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritako betekizunak betetzen baditu, hau da, 250 pertsona baino gutxiago enplegatzen baditu eta haren negozio-bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez bada edo balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez bada.

- ETE: mikroenpresa bat, enpresa txiki bat edo enpresa ertain bat, Batzordearen 2003/361/EB Gomendioaren eranskineko 2. artikuluan definitzen diren bezala (Batzordearen 2003/361/EB Gomendia, 2003ko maiatzaren 6koa, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzkoa).

ETE kategorian, honela definitzen da enpresa txikia: 50 langile baino gutxiago dituen enpresa, zeinaren urteko negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak ez baitu 10 milioi euroko kopurua gainditzen.

ETE kategorian, honela definitzen da mikroenpresa: 10 langile baino gutxiago dituen enpresa, zeinaren urteko negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak ez baitu 2 milioi euroko kopurua gainditzen.

- Energia berriztagarrien autokontsumitzailea: azken kontsumitzaile bat, espazio mugatu baten barruan kokatutako lokalean edo, estatu kideak baimentzen duenean, beste lokal batzuetan jarduten duena, bere kontsumorako elektrizitate berriztagarria sortzen duena eta autosortutako elektrizitate berriztagarria biltegitatu edo saldu dezakeena, betiere, etxe ez diren energia berriztagarrien autokontsumitzaileen kasuan, jarduera horiek ez badira beren merkataritza-jarduera edo jarduera profesional nagusia.
- Energia berriztagarrien autokontsumitzaileak, elkarrekin jarduten dutenak: energia berriztagarrien gutxienez bi autokontsumitzailek osatutako talde bat, elkarrekin jarduten dutenak eta eraikin berean edo apartamentu-bloke berean daudenak.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

CCEE\_001

### III. Eranskina: Energia-komunitateak eratze eta kudeatzeko dirulaguntzaren eskaera

Anexo III: Solicitud de subvención para constitución y gestión de comunidades energéticas (1)

Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Salla  
Departamento de Modelo de Ciudad, Urbanismo, Vivienda, Limpieza y Medio Ambiente

Tel: 945 16 16 16  
[informacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org)

(1) eta eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan egindako inbertsioa, autoconsumo kolektiboko erregimenean, Vitoria-Gasteizen y la inversión en instalaciones de energía solar fotovoltaica, en regimen de autoconsumo colectivo, en Vitoria-Gasteiz

#### ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK – DATOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE

Isozietataren izena – Razón social

IFZ/IFK – NIF/CIF

#### ADMINISTRAZIOAREN AURREKO ORDEZKARIAREN DATUAK DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE ANTE LA ADMINISTRACIÓN

Izena – Nombre

1. abizena Apellido 1	2. abizena Apellido 2
Izena / Sozietatearen izena Nombre / Razón social	NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF

Helbidea – Dirección

Kalea Calle	Zenbakia Número	Letra Letra	Eskailera Escalera
Solairua Piso	Alea Mano	Posta-kodea Cód. Postal	Herria Población
Udaleria Municipio	Lurraldea Provincia	1. telefonoa Teléfono 1	2. telefonoa Teléfono 2
1. telefonoa Teléfono 1	2. telefonoa Teléfono 2	Posta elektronikoa Correo Electrónico	

#### DIRULAGUNTZA ESKATZEN DU - SOLICITA SUBVENCIÓN PARA (2)

(2) Markatu bat edo biak, dagokionaren arabera – Marcar una o ambas, según proceda.

1. kontzeptua – Concepto 1  2. kontzeptua – Concepto 2

#### ERAKUNDE ESKATZAILEAREN BANKETXEKO DATUAK - DATOS BANCARIOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE

Finantza-erakundea – Entidad Financiera	IBAN	F.E.Kodea Código E.F.	Bulegoa Sucursal	KZ - DC	Kontu-zenbakia - Número de Cuenta
---	------	--------------------------	---------------------	---------	-----------------------------------

#### BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU – DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD

- Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak emateko udal programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela.
- Conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del Programa Municipal de Ayudas Económicas y Subvenciones.
- Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.
- Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social y demás circunstancias derivadas del artículo 13.2 de la Ley general de Subvenciones.

#### GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO – AUTORIZA AL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

- (1) "X" batez adierazi dagokiona - Marque con una "X" lo que proceda
- Konkurrentziatik eratorritako komunikazio ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera.
- Recibir las comunicaciones oficiales por correo electrónico, derivadas de su concurrencia, conforme a la Ley PAC 39/2015, artículos 40 y 41.

Dirulaguntzen Udal Ordenantzen 12. e) artikuluekin bat etorri, **Udalak ofizioz kontsultatuko ditu eskatzaileen nortasun-datuak, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.**

De conformidad con el artículo 12. e) de la Ordenanza Municipal de Subvenciones, **el Ayuntamiento consultará de oficio los datos de identidad de las personas solicitantes a través de la Dirección General de la Policía.**

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92.1 d) artikulua, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 23.3 artikulua eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua, **Udalak ofizioz eskatuko du Foru Ogasunarekiko zerga-be-tebarrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.**

De conformidad con el artículo 92.1 d) de la Norma Foral General Tributaria de Álava, artículo 23.3 de la Ley General de Subvenciones y artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común, **el Ayuntamiento recabará de oficio el certificado de estar al corriente de pago en las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral.**

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 6/11/2024





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

CCEE\_001

### III. Eranskina: Energia-komunitateak eratze eta kudeatzeko dirulaguntzaren eskaera

Anexo III: Solicitud de subvención para constitución y gestión de comunidades energéticas (\*)

Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Salla  
Departamento de Modelo de Ciudad, Urbanismo, Vivienda, Limpieza y Medio Ambiente

Tel: 945 16 16 16  
[informacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org)

(\*) eta eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan egindako inbertsioa, autokonsumo kolektiboko erregimenean, Vitoria-Gasteizen y la inversión en instalaciones de energía solar fotovoltaica, en regimen de autoconsumo colectivo, en Vitoria-Gasteiz

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, eskatzailea ez dago Udalak Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren nortasun-datuak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren ordainketan egunean egotearen ziurtagiriak kontsultatzearen aurka.

De conformidad con el artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común, la persona solicitante no muestra oposición a que el Ayuntamiento consulte los datos de identidad de la Dirección General de la Policía, así como, los certificados de estar al corriente de pago con la Tesorería de la Seguridad Social.

Aurkakotasuna adierazteko, adieraz ezazu zergatik: - De mostrar oposición, indique el motivo:

#### DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (\*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de  
Izenpea - Firma

Inprimakia sinatu aurretik, hurrengo orrialdean agertzen den datuen babesari buruzko informazioa irakurri beharko duzu.

(\*) Antes de firmar el formulario, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 6/11/2024



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

CCEE\_001

### III. Eranskina: Energia-komunitateak eratze eta kudeatzeko dirulaguntzaren eskaera Anexo III: Solicitud de subvención para constitución y gestión de comunidades energéticas (1)

Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Salla  
Departamento de Modelo de Ciudad, Urbanismo, Vivienda, Limpieza y Medio Ambiente

Tel: 945 16 16 16  
[informacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org)

(1) eta eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan egindako inbertsioa, autoconsumo kolektiboko erregimenean, Vitoria-Gasteizen y la inversión en instalaciones de energía solar fotovoltaica, en regimen de autoconsumo colectivo, en Vitoria-Gasteiz

#### DATU BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN ADICIONAL SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

<b>Tratamenduaren arduraduna</b> <i>Responsable del tratamiento</i>	<b>Identitatea:</b> - <i>Identidad:</i> Vitoria-Gasteizko Udala - IFK P0106800F Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz - CIF: P0106800F <b>Helbidea:</b> - <i>Dirección:</i> Calle Pintor Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba/Álava <b>Telefonoa:</b> - <i>Teléfono:</i> 945 161 616 <b>E-mail:</b> - <a href="mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org">informacion@vitoria-gasteiz.org</a> <b>Webgunea</b> - <i>Página Web:</i> <a href="http://www.vitoria-gasteiz.org">www.vitoria-gasteiz.org</a> <b>Datuak Babesteko Ordezkarria:</b> - <i>Delegado/a de Protección de Datos:</i> <a href="mailto:dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org">dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org</a>
<b>Tratamenduaren xedeak</b> <i>Finalidad del tratamiento</i>	<b>Helburua:</b> Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrria. <b>Finalidad:</b> <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015.</i> <b>Gordetzeko epeak:</b> Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Orobat, gordeko dira interesdunarekiko harremanetatik sortzen diren errekamazioak bideratu nahiz haiakoetan defendatzeko aurreikusitako epeak iraunbitartean. Era berean, artiboeti eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutako aplikatuko zaie. <b>Plazos de conservación:</b> <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
<b>Legitimazioa</b> <i>Legitimación</i>	Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
<b>Hartzaileak</b> <i>Personas destinatarias</i>	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei. <i>Los datos personales no serán cedidos a terceros.</i>
<b>Eskubideak</b> <i>Derechos</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, interesdunak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la persona Delegada de Protección de Datos.</i>

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 6/11/2024